


04.

PLANAREN IKUSPUNTUA

Irungo Emakume eta Gizonezkoen berdintasunerako IV. Planak EAEko Emakume eta gizonezkoen Berdintasunerako VI. Planaren printzipio eta lan-ildoak jarraitzen ditu.



Emakumeen eta Gizonezkoen Berdintasunerako Gobernantza

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera generoaren zeharkakotasuna gauzatu behar du Emakume eta Gizonen Berdintasunerako Gobernantzak.

4/2005 Legeak, printzipio orokorretan, aldarrikatzen du botere publikoek egiten dituzten politika eta ekintza guztietan genero-ikuspegia barne hartu behar dutela, emakume eta gizonen arteko ezberdintasunak desagerrarazteko eta berdintasuna sustatzeko (3. artikulua). Lege honen ondorioz, honako hau da genero-ikuspegia txertatzea: “emakumeen eta gizonen egoera, baldintza, jomuga eta beharrian ezberdinak modu sistematikoan kontuan hartzea, eta horretarako, politika eta ekintza guztietan, maila guztietan eta horien plangintza-, egikaritze eta ebaluazio-fase guztietan, ezberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko xedea duten helburu eta ekintza zehatzak txertatzea”.

Balioen Aldatzea eta emakumeen ahalduntzea

Balioek aldatzea VI. Planaren helburu orokorretariko bat da. Gaur egungo gizartearen ezaugarrietako bat bere sinkretismoa da, hau da, balio modernoek eta tradizionalen arteko bizikidetzak. Nahiz eta euskal herritarren artean berdintasunaren diskurtsoa txertatzen ari den, emakume eta gizonek dituzten funtzio, rol eta bere denboraren erabilera soziala ere ezberdinak dira oraindik.

Emakumeen ahalduntzeak emakumeen bizimoduari eragiten dioten baliabideen eta erabakien gaineko autoritatea eta boterea areagotzen ditu. Emakumeak banaka nahiz taldean jabetzeko prozesuari buruz ari gara; izan ere, honen bitartez erabakiak hartzeko prozesuetako parte-hartzea areagotuko da, agintera iristen lagunduko du, eta eragina izateko ahalmenean ondorioa izango du. Etorrizuneko gizartea eta ekonomia garapena ez litzateke guztiz garatuko emakumeen parte hartze ekonomiko eta politikorik gabe maila guztietan.

Gizarte Antolakuntza Erantzunkidea

Gizarte-antolakuntza erantzunkideak bizimodu pertsonala, familiara eta lanekoa uztartzea erraztea esan nahi du, gizonen erantzukizuna lortzea etxeko eta zaintza arduetan, enpleguaren egiturak bizitza pertsonalaren eta familiararen beharrei egokitzea eta zerbitzu sozio-komunitarioak egokitzea

Indarkeria Matxistarekin Amaitzeko Borroka

lido estrategiko honek epe laburrean eragina izan nahi du, biktimen babes eta arreta osorako neurriak eta baliabideak eratuta. Gainera, emakumeen aurkako indarkeria mota ezberdinak emakumeen eta gizonen desberdintasunetik eratorritako gizarte-arazo gisa ikusarazten dituzten sentsibilizazioko eta prebentzioko jarduerak ere lehenetsi behar dira, pixkanaka horiek murriztu, eta azkenean, guztiz desagerrarazteko.